



<http://irakaskuntza.lab.eus>

✉ irakaskuntzabizkaia@lab.eus  
 irakaskuntzagipuzkoa@lab.eus  
 irakaskuntzaaraba@lab.eus  
 irakaskuntzanafarroa@lab.eus

## **Irakasleon Akordio Arautzailearen negoziazioaren lehen bilera izan dugu Lan hitzarmena berritzeko artikulatuaren zirriborroa aurkeztu zaigu, sindikatuok ekarpenak egiteko unea da orain**

Irakasle funtzionarioen mahai negoziatzailea bildu zen atzo. Bertan, akordio laboralaren ondoriozko edukietako batzuk landu ziren. Batetik, irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen 2010eko Akordio Arautzailea berritzeko negoziazioaren inguruan aritu ginen. Hezkuntza Sailak artikulatu berriaren proposamena aurkeztu zigun, orain sindikatuok aztertu, osatu eta hobetu beharrekoa. LABek, besteak beste, indarra egingo du hurrengoetan: adinagatik murrizketa eta gazteberritze planetan, ordezkoen araudi berriari eta ordezko irakasleen eskubideak mantendu eta zabaltzean, lanaldian eta uztailaren izaeran, irakasleen funtzioetan, ordainsarietan dauden arrakalak gainditzean, lizentzia eta baimenetan, euskalduntzean, EPE ereduak aldatu eta egonkortzeko neurrietan, eta sortu daitezkeen figura berrietan edota baliabide gehigarrietan -hizkuntza-proiektuetarako, hezkidetzarako edota aniztasunaren trataerarako-.

Bileran Akordio Arautzailearen negoziazio faserako egutegia aurkeztu ziguten, abendura bitarteko mahaiak barnebiltzen dituen, eta hurrengo bilera azaroaren 8an burutuko da. Ordurako lehen 54. artikulatuak landu eta ekarpenak bidali behar ditu sindikatu bakoitzak. LABen afiliazioarekin batera barne mailako bileretan landuko ditugu gure proposamenak eta eskola publikoetako gainerako irakasleen eskura jarriko ditugu. Negoziatioekin hasi garen fase honetan gogoratu nahi dugu 2023ko martxoaren 30ean buruturiko hauteskunde sindikaletan ateratako emaitzaren arabera dela mahai sektorial bakoitzean sindikatu bakoitzak duen bozka ahalmena. Irakasle funtzionarioen mahai sektorialean, zehazki, %30eko bozka portzentaia da LABena, %38,18 STEILASena, %20,91 ELArena eta % 10,91 Interinok Taldearena.

Bestetik, Akordio Arautzailearen negoziatioaz gain, plantillak esleitzeko irizpideek izango ditugu negoziagai, izan ere, hauek ikasturtero landuko ditugu 2022ko maiatzaren 26ko akordioa sinatu dugun sindikatuon artean. LABek positibotzat jotzen du sinatzaile garen aldetik, akordioa etengabe berrikusi eta berritzea. Zentzu horretan, LABetik ALEen eta PTen ratioen eta hauen irizpideen negoziatioa proposatu genuen irailaren 27an buruturiko akordioaren jarraipen batzordean eta gaurko mahai negoziatzailean ere.

Mahai sektorialean negoziatuko ditugun gaiez gain, aurreko infoan esan bezala, ezinbestekoa zaigu funtzio publikoko Mahai Orokorrekoak diren gaiak, langile guztioi eragiten digutenak -erosahalmena bermatzeko soldata-igoerak, aurre-erretirorako neurriak edota birjartze-tasa, besteak beste-HEMEN NEGOZIATZEKO Urriaren 25ean eta Abenduaren 19an greba egin eta kalera ateratzea!



*Banatu ez eraldatu!*

